

Joxe Mari Anzumendi

HIK HASIKO KOORDINATZAILEA

Hik Hasik Hazi Hezi

S

ortu da *Hazi Hezi*, etxe koentzako heziketa aldizkaria. Etxea era zaba-lean ulertuta, komunitate osoa har- tzen duela: gurasoak, aitona-amo- nak, izebak, osabak, zaintzaileak...

Duela hamazazpi urte, haurraren eta gaz- tearen heziketan lagun zezakeen tresna bat sortu zuen irakasle talde batek: *Hik Hasi* aldiz- karia. Baina, irakasleen premia hori asetzen hastean, agerian gelditu ziren etxeko heziketa- ren premiak: etxeko heziketak eskolakoarekin batera joan behar zuela, eskolako heziketak etxekoa osatu behar zuela, biek norabide berean joan behar zutela... Horretarako, etxera- ko beste tresna bat sortu behar zela ikusi zen.

Urte horietan guztietan, hemengo eta kan- poko hainbat ikerketek eta errealitateek zera erakutsi digute: etxea eta eskola elkarrekin ari direnean emaitzak askoz ere hobeak direla, arlo guztietan. Izan ere, eskola eta familia hel- buru bera duten bi instituzio dira. Haurraren edo gaztearen garapen integrala da bien hel- burua: garapen fisikoa, kognitiboa, psikikoa, emozionala, soziala... Azken finean, haurra eta gaztea ongi sentitzea, bai beren buruarekin eta bai jendartean, hau da, zoriontsu izatea.

Aldaketa handiak izan ditugu denbora gutxian, arlo guztietan, bizitzeko abiadan batez ere. Horrek, aldaketa handiak ekarri diz- kiete jendartea eta familia ulertzeko moduari, harremanei, irakasteko erari... Horregatik,



DANI BLANCO



Jada, ez da nahikoa
jendea ikasketetan
prestatua eta
zintzoa izatea,
pertsona
arduratsuak behar
dira. Eta hori,
etxetik hasten da



eredu berriak behar dira, eta jende sortzailea eta aldaketaren aurrean irizpideak, iritzi pro- pioak izango dituen, kontzientziaren ara- bera jokatu duen... Jada, ez da nahikoa jendea ikasketetan prestatua eta zintzoa izate- a, pertsona arduratsuak behar dira. Eta hori, etxetik hasten da.

Haurraren garapenaz eta heziketaz gero eta gehiago arduratzen dira gurasoak. Gero eta galdera gehiago dituzte haurraren hezi- ketaz. Baina, Interneten, liburuetan, komuni- kabideetan eta kalean inoiz baino informazio gehiago dagoen honetan, premiazko ikusten da iturri fidagarri eta kalitatezkoak zein diren identifikatzen laguntzea. Izan ere, oinarrizko- ak diren jarraibide batzuk azaldu behar dira, hankak ondo finkatzen laguntzeko, norberari segurtasuna emateko eta gauzak ondo egiten ari garela ikusten laguntzeko.

Euskal jendartea hobetu nahi bada, ona litzateke munduko ekarpenei gure betaurreko- ekin begiratzea, eta egokia den hura, gurera ekartzea. Baina, oinarrizkoago litzateke gure hausnarketa propioari eta zintzoari kasu egitea.

Euskarazko hedabideen sarea handitzera dator *Hazi Hezi* aldizkari berria eta elkarla- nean arituko da, denon artean euskal komunitatea sendotzeko asmoz. Hasteko, *Irrien Lagunak* eta *guraso.com* taldeekin elkarla- nean jaio da. ■



TXANDAN

Castillo Suarez



Gaixotu eta berehala aitortu zidan nazka ematen zio- tela ingurukoek etengabe bidaltzen zizkieten mezu baikorrek. Izan ere, behin eta berriz errepikatzen zioten –asmorik onena- rekin, hori seguru– minbiziari aurre egiteko fun- tsezkoa zela aldarte ona eta jarrera positiboa era- kusteak. Aitortu zidan pentsatu ere egin zuela bere erruz gaixotu izana. Ez ziola etsitzen uzten bere buruari, eskubiderik edukiko ez balu bezala hasere eta goibel egoteko. Lagunek esaten zioten ez zela sendatuko bere jokabidea aldekoa ez bazen.

Pentsamendu positiboa

Etan krudela da esatea norberak nahi duen guztia eskura dezakeela jarrera aldatuta, baina tankera horretako mezuak nonahi eta noiznahi entzuten ditugu, pentsamendu positiboaren morroiak bai- kara. Liburu dendetako erakusleihoak autolagun- tza liburuz beteta daude. Bitartean ez diegu erre- paratzen gizartean dauden desberdintasunei, eta, beraz, ez dugu ezer egiten gizartean dauden injustiziak desagerrarazteko. Izan ere, pentsamendu positiboa da gizarteko desberdintasunak justifika- tzeko modu bat. ■

